2009-II-06
Número **266.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela-sindikatua.org

astekaria

# EDITORIALA

## Igarle finak

Egoera hain larria ez balitz, txantxarako aukera paregabea emango luke administrazio ezberdinetako goi kargodunek adierazle ekonomikoen jira-biran darabilten igarle agerpenak. Ziurtasun osoz ageri dira hedabideen aurrean epe luzerako aurrikuspenak egiten, batetik, eta egoera larrosa kolorez margotzen epe motzera, bestetik, nonbait laburrean irtengo omen gara krisialdi honetatik eta.

Etengabeko gainbeheran azaldu dizkigute Barne Produktu Gordinaren arabera izango den hazkunde ekonomikoa. Urte osorako egin diren aurrikuspenak hilero hilero aldatzen doaz eta zenbaitek hazkundearen ordez atzeraldiaren datuak jarri dizkigu aurpegiaren aurrean. Egoera larria benetan. Lotsarik gabe saltzen digute oinarririk ez duen iragarpena.

Egoera ekonomiko orokorra begiratu beharra badago ere, are eta larriagoa da langabeziarekin darabilten joku maltzurra. Langabeziaren zenbaki bakoitzeko aurpegi bat, pertsona bat, drama bat ez balego atzean izen eta abizenez identifikaturik, barregurarako joko handia emango luke. Langabeziko zerrendak ondo loditzen ari diren honetan, oinarririk gabeko aurrikuspenak egitea lizunkeria da. Urte guztirako lehendakariordeak egindako aurrikuspeneko kopuruaren erdia baino gehiago bete da aurreneko hilabetean Erkidego Autonomoaren kasuan, Nafarroan, berriz, joerak goranzko norabide azkarra hartu du. Beste hainbeste gertatu da estatu mailan Solbes jaunak eginikoetan.

Hobe lukete igarle lanetara dedikatu beharrean- sinesgarritasun osoa galdua baitute- ahaleginak langabeziaren lerro luzea murriztera bideratuko balituzkete. Hobe lukete, bederen, halabeharrez egoera horretara bere burua beharturik ikusten duen jendetzaren babes baldintzak hobetzera zuzenduko balira. Hori egin ezean, beste behin, propaganda, itxurakeria eta faltsukeria leudeke agerian. Zoritxarrez, ez da beharrezkoa igarlea izan ondo asko antzemateko beren nahiak langabetuen interesetatik oso urrun doazela. Ez dira ez, igarle finak.




**Zaila eta gogorra dator aurtengo negoziazio kolektiboa. Patronala oraingo krisitik onura ateratzen saiatuko da, betiko errezeta sustatuz: soldaten neurritasuna. Horren aurrean ELAk enplegu gehiagoren eta soldata hobeen aldeko hautua egiten du. Erasora jotzen dugu, hori baita gure jendearen interesak zaintzeko bide bakarra. ELAren jomugak soldatak, gizarte-gastua eta justizia soziala dira. Azken batean, aberastasuna modu zuzenagoan banatzea.**

## 2009ko negoziazio kolektiboaren ardatzak

# SOLDATA ETA ENPLEGU GEHIAGO

Joseba Villarreal, Unai Martinez eta Gurutz Gorraiz izan ziren ELAk aurtengo negoziazio kolektiboaren inguruan egiten duen hausnarketa aurkeztu zuten lagunak. ELAk enplegu gehiagoren eta soldata hobeen aldeko hautua egiten duela azpimarratu zuen Joseba Villarrealek Donostian eginiko agerraldian. "ELAn erasora jotzen dugu, bai, hori baita bide bakarra gure jendearen interesak zaintzeko. Gure jomugak dira soldatak, gizarte-gastua eta justizia soziala. Eta, azken batean, aberastasuna modu zuzenagoan banatzea".

ELA ez doala gobernu eta patronalaren norabide berdinean dio Villarrealek. "Argi izan behar dute ez gozela ontzi berean, gure interesak eta beraienak kontrajarriak direla. Gure aldetik, bitarteko guztiak erabiliko ditugu langileon interesak defendatzeko". Administrazioaren jarrera ere gogor salatu zuen. "Enplegu-erregulazio espedienteak bideratzeko modua oso adierazgarria da; herri administrazioak patronalaren esanetara daude".

### SISTEMA DAGO KRISIAN

ELArentzat sistema osoaren aldaketa ezinbestekoa dela gogorarazi zuen Villarrealek. "Eredu honek ez du balio, sistema bera da huts egiten duena, krisian dagoena. Sistemak duen gaitza esktrukturala izanik, neurriak ere halakoak izan behar lukete. Zerga sistema progresiboa aldarrikatzen dugu, hau da, diru gehien dutenek zerga gehiago ordaintzea. Eta, noski, horrekin batera ezinbestekoa da iruzur fiskalaren aurka borrokatzea. Gastu sozialaren areagotzea eta aberastasunaren banaketa zuzenagoa ezinbestekoak dira etorkizun hobe baten oinarriak finkatzerakoan. Gainera, beharrezkoa da finantza merkatuen gaineko kontrola".

Administrazioek, bestalde, oso bestelako jarrera hartu dute. "Kutxetan eta bankuetan dirua erruz sartzen dute, baina hauek dirua euren zuloak estaltzeko erabiltzen dute, familien kontsumoa suspertu beharrean, edo likideziaarazoak dituzten enpresei finantziazioa eskaini beharrean. Gobernuek iragarritako neurrietatik batek ere ez du sistema zalantzan jarri".




Gurutz Gorraiz –secretario general de Hainbat–, Joseba Villarreal –responsable de negociación colectiva– y Unai Martinez –secretario general del Metal–.

*ELA va a luchar por más y mejor empleo, y más salario*

## MERECE LA PENA LUCHAR POR...

- **MÁS SALARIO**
  - Incrementos por encima del IPC.
  - Eliminación de las discriminaciones.
  - Activar la economía.
  - Que la barrera de los 1.000 euros sea historia.
- **MÁS Y MEJOR EMPLEO**
  - Luchando contra el fraude en la contratación.
  - Rechazando los ajustes de empleo.
  - Combatiendo la flexibilidad y precariedad.
- **STOP A LOS ERES**
  - Debe ser una medida excepcional.
  - No deben aceptarse en empresas con beneficios.
  - Fijos y eventuales somos iguales.



**Los secretarios generales de Hainbat y Metal, Gurutz Gorraiz y Unai Martínez, respectivamente, han criticado la falta de escrúpulos de muchos empresarios al aprovechar la difícil situación por la que atravesamos para aumentar sus beneficios. En este sentido, han adelantado que la negociación colectiva del 2009 será dura pero que ELA no dará marcha atrás en sus reivindicaciones de mejora del poder adquisitivo, reducción de jornada y defensa del empleo. Ambos destacan que hay que plantear la negociación empresa por empresa, sector a sector, ya que la crisis no está afectando a todo el tejido industrial por igual.**

### Gurutz Gorraiz, secretario general de Hainbat

# "VAMOS A CONFRONTAR CONTRA EL CHANTAJE PATRONAL Y LA DESTRUCCIÓN DE EMPLEO"



**-Han pasado varios meses desde que se inició la crisis. ¿Qué ideas se pueden subrayar de un análisis detallado de la utilización de los EREs y de los diversos procesos concursales?**

-En primer lugar, hay que decir que en esta federación no todas las empresas presentan dificultades; hay muchas empresas que trabajan con normalidad, en todos los sectores y de todos los tamaños. A ello habría que unir que no existe un único problema o una causa a la que imputar el origen de los problemas que se perciben en las empresas con problemas.

En este escenario, hay que denunciar que la patronal ha decidido mantener sus niveles de beneficio, y para ello ha declarado la guerra a los contratos de trabajo y a los derechos laborales. Con carácter habitual las medidas de carácter colectivo presentadas por la patronal no son proporcionales al problema existente. Aprovechando el fantasma de la crisis, la patronal pretende introducir medidas estructurales que no persiguen solventar el problema existente sino situarse en una posición que le permita incrementar los beneficios de la empresa vía precarización de las condiciones laborales.

**-Ante esta política diseñada para mantener los beneficios de otros años, ¿qué papel juega la administración?**

-La Consejería de Trabajo y el Gobierno Vasco han tomado posiciones claramente favorables a las tesis empresariales y en contra de las demandas sindicales. Por un lado niega la información sobre los EREs solicitada por los sindicatos y, por otro, resuelve a favor de la patronal el 80% de los EREs presentados sin acuerdo.

Todos sabemos la importancia que tiene el disponer de una información completa y actualizada de los expedientes que se presentan para hacer un mejor seguimiento de los mismos.

*"Jaurlaritzak patronalaren aldeko hautua egin du; akordiorik gabeko ia espediente guztietan bere alde erabakitzen du"*

**-Has señalado que la patronal ha declarado la guerra a los contratos y a la negociación colectiva. ¿Con qué consecuencias?**

-El superior incremento del desempleo en Euskal Herria durante estos últimos meses en comparación a la media europea sólo se explica desde la masiva destrucción de contratos precarios. Las grandes víctimas de esta política –que como decía antes, pretende mantener el nivel de beneficios de años precedentes– son los colectivos más débiles del mercado laboral. Nos referimos a aquéllos que tienen contratos temporales, al personal de las subcontratas y a los inmigrantes. Dicho de otra manera, la patronal está ya en el día después y, en muchos casos, trata de aprovechar la situación para flexibilizar, despedir y reducir salarios.

**-En este contexto, ¿cuál es la posición de ELA?**

-ELA no es insensible a los problemas existentes en las empresas y a la economía en general, pero vamos a confrontar contra el chantaje y la degradación de las condiciones de trabajo.

Para ello, ELA va a seguir analizando las situaciones económicas y productivas empresa a empresa y sector por sector, y adoptará su posición en cada expediente y negociación colectiva desde una posición sindical responsable, que para nosotros se expresa como la defensa de los colectivos mas débiles. Nos opondremos a la destrucción del empleo y la defensa de los derechos laborales.

### Unai Martinez, Metaleko idazkari nagusia

# "NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAN EZ DUGU ATZERA PAUSORIK ONARTUKO"

**-Metalgintza alorreko enpresetan nolako eragina izan du krisiak?**

-Lehenik eta behin esan beharra dago soldatak eta lan baldintzek ez dutela krisialdi hau eragin. Inork ez du hau zalantzan jartzen, baina enpresariek, eta neurri handi batean administrazioek, langileon patrikak hustu nahi dituzte krisia ordaintzeko. Enpresari askorentzat krisia mozkinak handitzeko aitzaki aproposa bihurtu da. Enpresetan arazoak izan ala ez izan, soldatak izoztu edo murriztu, flexibilitatea areagotu eta langileak kalera bota besterik ez dute nahi ugazabek.

Kasu baten baino gehiagotan hitzarmenean jasotako soldata igoera berriro negoziatzea eskatu digute, eta beste batzuetan estatuko hitzarmenean jasotzen dena aplikatu nahi izan digute, enpresan sinatutakoa bertan behera utziz.

Guk ez dugu hori onartuko eta enpresa eta sektore bakoitzaren egoera sakonki aztertu eta gero hartuko ditugu egokiak deritzogun erabakiak.



*"No aceptaremos ningún paso atrás en la negociación colectiva"*

ELAn argi eta garbi esaten dugu ez ditugula horrelako xantaiak onartuko, ez dugula utziko lan-merkatua are gehiago prekarizatzen, nahikoa prekazioa bada dagoeneko, ez dugula onartuko egitura-neurririk garai jakin bateko arazoak konpontzeko.

**-Egoera honetan, nola ikusten duzu negoziazio kolektiboa?**

-Guk, gure aldetik, eta berriro diogu, ez dugu onartuko negoziazio kolektiboa krisiaren baldintzapean jartzea, eta aurre egingo diegu soldatamurrizketari, malgutasunari eta prekarietateari.

Orain enpresariek diote denok ontzi berean gaudela eta arraunean denok batera egin behar dugula. Hori gezur hutsa da. Krisiaren aitzakian negoziazio kolektiboa zapuztea dute helburu, ez besterik. Sakrifizioaren zama guztia langileon bizkarrera eraman nahi dute eta, bide batez, gure poltsikoak hustu.

Aurreko krisialdian ere gauza bera zioten, baina errealitatea oso bestelakoa izan zen. Langileok larrutik ordaindu genuen krisia, eta ahalegin guztia egingo dugu berriro gerta ez dadin.

Hazkunde ekonomikoaren garaian, enpresen etekinak bakarrik hazi dira. Azken hamabost urteotako hazkunde garaian desoreka nabaria eman da aberastasunaren banaketan. Ondorioz, enpresen etekinek hirukoiztu egin dituzte soldaten kostuak. Lan merkatuan dagoen prekarietatearen eraginez, langile bakoitzeko lan-kostua inflazioaren azpitik hazi da.

Enpresa bakoitzaren egoera aztertu eta gero aurkeztuko ditugu gure plataformak eta azterketa horren arabera KPIren gaineko soldata igoerak, lanaldiaren murrizketak eta enplegua bermatzeko neurriak jarriko ditugu mahai gainean.

Ez dugu atzera pausurik emango eta presioari eusteko gai izango gara. Gure interesak eta beraienak kontrajarriak dira. Aurreko krisialditik ikasiz, bitarteko guztiak erabiliko ditugu langileon interesak defendatzeko.

## El 40% de las personas desempleadas no recibe prestaciones

# 40.000 PARADOS/AS MÁS EN 2008




En 2008 el número de desempleados/as en Hegoalde creció en 40.000 personas, lo que elevó el número a 113.700. De ellas, 57.300 son hombres (25.000 más que el cuarto trimestre de 2007) y 56.200 mujeres (15.000 más). De esta forma, la tasa de paro ha sido del 8,3%, 2,9 puntos superior a la del cuarto trimestre de 2007 (la tasa masculina ha sido del 7,6% y la femenina, del 9,3%).

Por otra parte, el número de personas beneficiarias por prestaciones de desempleo en Hego Euskal Herria ha sido de 67.700 en el mes de noviembre (última fecha de la que disponemos información), lo que significa que el 40% de las personas desempleadas no recibe ninguna prestación de desempleo.

Otros datos importantes que destaca el gabinete de estudios de ELA es que los efectos que la crisis está teniendo en la destrucción de empleo en Hego Euskal Herria son muy superiores a la media europea, hecho que se produjo también en la crisis anterior y que se explica por la elevada tasa de precariedad y la flexibilidad.

En los años de crecimiento económico se ha creado empleo, pero temporal, y es esa misma bolsa de empleo temporal la que se utiliza para realizar los ajustes de empleo en la actual coyuntura económica. No es casual –por tanto– que se hayan ido a la calle 36.200 personas con contrato temporal. De hecho, la mayor parte del empleo se destruye de forma silenciosa, muy por encima de los EREs, que se llevan el centro de la atención mediática.

Según el gabinete de estudios de ELA, en 2008 se destruyeron en Hego Euskal Herria 34.000 empleos, de forma que la población ocupada ha descendido a 1.248.300 personas. La población ocupada masculina ha sido de 701.400 personas (30.000 menos que el cuarto trimestre de 2007), y la femenina, de 546.900 (4.000 menos).

El sector que más población ha ocupado ha sido el de servicios, con 802.200 personas (el 64,3% del total); 307.000 han trabajado en la industria (24,6%), 111.600 en la construcción (8,9%), y 27.500 en agricultura, ganadería y pesca (2,2%).

En cuanto a la evolución, se ha perdido empleo en todos los sectores, siendo el de la construcción el más perjudicado (19.800 puestos de trabajo perdidos), seguido del sector servicios (13.900), de la industria (200) y de la agricultura, ganadería y pesca (100).

### ENPLEGURIK GABEKO PERTSONAK ZENBATZEN DITUZTE GOBERNUEK, LASAI ASKO

**ELAren aburuz, langabeziari buruz ezaguturiko azken datuek gobernu ezberdinek orain arte eginiko aurreikuspenak bertan behera uzten dituzte.**

**Hori gertatzen den bitartean, bere politika ekonomikoak aldatzeari uko egiten diote eta itxurazko neurri hutsalekin ordezkatzen dituzte.**

**Hori gutxi balitz, babes sozialeko mailak (desenpleguaren babesa) estaldurarik gabe uzten du langabezian dauden pertsonen gehiengo handi bat.**

**ELAren Iritziz, inoiz baino beharrezkoagoa da gastu soziala handitzea eta egoera honetara bideratu gaituzten politiken aldaketa.**

## Movilizaciones en las subcontratas de limpieza de los ayuntamientos

Las próximas semanas las trabajadoras de limpieza subcontratadas de los edificios municipales de Zornotza, Zarautz, Renteria y Eibar retomarán las movilizaciones para exigir la equiparación salarial con el personal propio que realiza similares funciones. La equiparación es ya un hecho en los ayuntamientos de Durango, Irún, Donostia, Hondarribi y Oiartzun, así como en las Diputaciones de Bizkaia y Gipuzkoa.

Ya hay planteadas huelgas desde el 9 al 16 de febrero en la limpieza de los edificios municipales de Zornotza; los días 28, 29 y 30 de enero en los de Zarautz; y los 29, 30 y 31, en Renteria. ELA planteará ir a la huelga indefinida si los ayuntamientos se niegan a negociar la equiparación.




En el contexto de la campaña *"aberastasuna banatu"*; que hemos iniciado, la Comarcal de Gasteiz ha convocado a sus militantes a una manifestación; con el fin de reivindicar la defensa de los intereses de los trabajadores y trabajadoras.

**MANIFESTAZIOA**
**Viernes / Ostirala 13 Febrero / Otsaila**
**A las 18:30 etan**
**Pza. Correos**
**Gasteiz**

## Labur Breves

### ● Propuesta poco seria en la Residencia Ariznavarra de Gasteiz

En la reunión del 5 de febrero Mapfre-Quavitae presentó una nueva oferta al comité de empresa de la Residencia Ariznvarra de Gasteiz. La propuesta recoge un incremento del IPC+1,25 para el 2008, y del IPC+0,5 para el 2009 y 2010, sin que se aborden aspectos fundamentales como la negociación de un convenio propio, la necesidad de equilibrio del abanico salarial y el plus de domingos o la jornada anual, entre otros.

En opinión del comité de empresa, tras once meses y medio en huelga por la dignificación de las condiciones laborales así como por la mejora de la calidad del servicio, "la oferta de la empresa es una tomadura de pelo".

"Sólo se puede entender esta reunión para justificarse ante la Diputación, o bien con el fin de dar coartadas a la diputada Solaguren para cuando se le pregunte en la Diputación sobre lo que pasa en Ariznavarra, y así pueda decir que ya se esta negociando".

### ● Lan Sailak ez du onartu Cegasako espedientea

Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak uko egin dio Cegasako zuzendaritzak abenduan aurkeztutako erregulazio espedientea onartzeari. Espediente hau bertako enpresa batzordeak, ELAren lidergoaz, arbuiatu egin zuen.

Joseba Azkarraga sailburua Cegasako enpresa batzordearekin izandako bileran langileok espedientearen aurkako arrazoiak azaldu zizkioten. Ondoren, otsailaren 3an, jakitera eman zuen Azkarragak espedientea ez zela onartuko.

Azken asteotan langileek mobilizazio ugari egin dituzte, espedientearekiko bere ezadostasuna agertzeko eta enpresako zuzendaritzaren jarrera itxia salatzeko.

### ● ELA alerta sobre la situación de la Sakana

Delegados/as de ELA se concentraron el 6 de febrero bajo el lema *Sakana en alerta Roja* para denunciar la situación que vive este valle navarro. De esta manera, ELA ha dado comienzo, también, a la campaña *Aberastasuna banatu-Repartir la riqueza.*

ELA denuncia el elevado número de empresas inmersas en EREs de suspensión y de extinción: Montajes Zapardi, Dinescon, Omnia industrial de armaduras, Industrias carsal, Eguzkia, Recindsa…, por lo que buena parte de la Sakana va a estar afectada de forma directa o indirecta con las consecuencias de la crisis.

Ante esta situación, ELA exige responsabilidades al Gobierno de Navarra, la patronal y los sindicatos CCOO y UGT, y les pide que expliquen a dónde han ido a parar los ingentes fondos de dinero público que se han destinado a la zona de Sakana a través del Plan de Empleo.

## Xabi Anza destaca la importancia de la formación en el inicio de la campaña en torno al reparto de la riqueza

# "ESTOS CURSOS DE FORMACIÓN SON NUESTRO PRIMER TEST DE CAMPAÑA"



Desde el 1 de febrero y hasta el 15 de marzo la Fundación Manu Robles-Arangiz Institutua va a impartir más de 150 cursos de formación relacionados con la campaña sobre el reparto de la riqueza. En ellos tomarán parte más de 2.500 delegados y delegadas y militantes de ELA. Xabi Anza, responsable de Formación de ELA desde el XII Congreso, destaca la trascendencia de estos cursos y los vincula al éxito posterior de la campaña.

**-¿Cuál es el objetivo de este ambicioso plan de formación?**

-Yo diría que son dos las razones para que nuestra campaña sobre el reparto de la riqueza se inicie con un mes y medio dedicado casi íntegramente a la formación de nuestros cuadros militantes. Por un lado, la necesidad de tomar conciencia de la gravedad de la actual situación económica y social; por otro, vincular a nuestra gente al desarrollo de la campaña. Se trata, por tanto, de abrir los ojos, de cohesionar y de tensionar al conjunto de la organización. Nos estamos marcando unas agendas muy ambiciosas de acción sindical, tanto desde la confederación, las federaciones y las comarcas.

Para ello es fundamental la participación de la gente. Tenemos que tomar aliento y fuerzas para el resto de la campaña. Creo que este inicio va a ser vital para el éxito de la misma. Tenemos por delante más de 150 cursos, a los que asistirán más de 2.500 delegados/as y militantes del sindicato. Es un reto enorme que afrontamos con mucha ilusión.

**-¿Cuál va a ser el programa de los cursos?**

-Se van a desarrollar por la mañana. Comarcalizados y sectorializados en su gran mayoría. Durante la primera mitad de la jornada haremos un análisis global de la situación económica y social: desempleo, políticas públicas… En la segunda mitad los delegados y delegadas se reunirán con su secretario o secretaria comarcal y el o la responsable de la federación correspondiente. Lo que se busca en esta segunda parte es, por un lado, informar a todos y vincularlos al plan comarcal y confederal de la campaña. Por otra parte, y allí donde sea posible, empezar a elaborar un plan de campaña en la empresa, que contemple encarteladas, reparto de *Notiziak*, la planificación de asambleas de afiliados y afiliadas y asambleas generales… Allí donde toca negociación colectiva y se está gestionando un ERE, buscamos también que la campaña sea un instrumento de fortalecimiento de nuestra posición sindical. El objetivo es vincular a la gente con las movilizaciones que llevaremos a cabo en las diferentes comarcales en los próximos meses

## *KontraKronika 1992-2007* una mirada con humor y crítica

El 4 de febrero tuvo lugar la presentación del libro *Kontrakronika 1992-2007*, una selección y recopilación contextualizada de los mejores chistes y viñetas publicados a lo largo de los últimos 15 años en Landeia y otras publicaciones de ELA. En el acto, presentado por Xabier Anza, responsable de Formación de ELA, tomaron parte los autores de esta publicación, German Kortabarria, guionista, y Jesús Antonio Ruiz *Jesse*, dibujante.

Anza destacó que esta obra "es una mirada aguda, penetrante, profunda y actual de la realidad" al tiempo que señaló que no hay compromiso sindical sin humor. "El humor permite perfilar la amenaza y detectar las vulnerabilidades del enemigo", aseguró.

Kortabarria, por su parte, tras alabar el trabajo de Jesse –"es un dibujante excelente, con una gran capacidad para reflejar ideas"- afirmó que los chistes recogidos en el libro constituyen una auténtica crónica de lo ocurrido en este país en los últimos tres lustros, una crónica contra el poder, contra el discurso oficial, en muchos casos de total actualidad, como pudo verse en el repaso que realizó posteriormente.

El que fuera responsable de comunicación de ELA aseguró que "el humor es un instrumento de comunicación que ha servido para transmitir ideas, críticas y posiciones".

El libro, editado por la Fundación Manu Robles-Arangiz Institutoa, está ya a la venta en las principales librerías al precio de 6 euros.



## Labur Breves

### ● Laborantza Ganbararen eskertza gutuna

Urtarrilaren 29an Euskal Herriko Laborantza Ganbarako presidente Mixel Berhocoirigoin epaitu zuten Baionan. ELAren ordezkaritza zabala, 300 lagunetik goitik, Baionan izan zen bai Mixeli bai Labarontza Ganbarari gure babes, elkartasun eta sostengu osoa adierazi asmoz. ELArentzat eredugarria da Laborantza Ganbarak bere hastapenetatik egin duen lana eta bultzatzen duen proiektua. Horregatik, beste behin, ELAk ahal zuen guztia egin zuen ekimen eredugarri horri bere babesa emateko. Sindikatuak egindako ahalegina eskertu asmoz, iragan astean Mixel Berhocoirigoinek gutuna igorri zion ELAri, Laborantza Ganbararen izenean. Hau da, hitzez hitz, Mixelen gutuna.

**MILA ESKER ELAKO LAGUNEI!**

*Eskertu nahi zaitut urtarrilaren 29an Baionara etorririk Euskal Herriko Laborantza Ganbarari sostengua ekartzera. ELA eta gure arteko adiskidantza leiala eta barnakorra da. Zor asko badugu zuei ordaintzeko, gure bihotzean eta estimuan zaituztegu.*

*Guztien presentziari esker, 29ko egun hori oso ederra izan da, auzitegi barnean eta kanpoan ere. Euskal Herriko Laborantza Ganbara gizarte oso baten sinboloa bilakatzen ari da, eta zoriontsu gara, abentura eder honetan, hasieratik eskuz esku izaiteaz.*

*Esker mila berriro eta laster arte. Izanen dira, gure bideetan, elkar topatzeko aukerak!*



ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.org

Franqueo concertado
nº 08/207